

Krisiari aurre eginez: auzolanean

Krisiaren kontrako Tokiko Ekintza-Plana

- ▶▶ Eragin beharreko zortzi arlo
- ▶▶ Paraje: San Pedro jaietako aurrekontuak.
- ▶▶ Asago: Mungia 202, hausnarketa estrategikoa.

OPOR ETA JAI SASOIAN GAGOZALA BERE, KRISIAREN GANEAN EGINGO DOGU BERBA?

Ba, bai; opor eta jai sasoiaren egonda bere, krisiaren kontra eragiteko plana aitatu behar dogu. Ez dago besterik; izan bere, egin leitekean txarrena, arin pasauko dalako usteagaz, begiak ixtea da; edo hori baino okerrago: begiak itxi, egoera hau igaroko dala pentsatu eta laster lehengo bestean edo hobeto biziko gara uste izatea da.

Ezin gara egon inoren pentzuan arazoa konpondu deiskuen. Danok egin behar dogu lan, herritar bakoitzak, enpresa bakoitzak, erakunde bakoitzak; inizatibea norberak hartu behar dau, albokoaren begira egon barik. Gure Udaltzako bere, Mungiako herritarren ordezkaria dan aldetik, aurrera egiteko bideak urratu behar ditu, proposamenak egin eta, batez bere, erabakiak hartu.

Ekonomia arloan eta, ondorioz, gizarte mailan daukagun krisi egoeraren aurrean Krisiaren Kontra Eragiteko Plana jarri dogu abian. Planak, batetik, epe laburrerako ekintzak (hemendik urte beterakoak) hartzen ditu kontuan eta, bestetik, epe luzeagoan eragina izan behar dabenak.

Laburpen txiki honen bidez, epe laburrean daukaguzan erronka edo betebeharrak agertu gura doguz. Baina, proposamenak, ideiak eta iradokizunak bere hartu gurako geunkez. Badakiz zelan bideratu daukaguzan guztiak. Ondo etorriak izango dira. Hau danon kontua da eta.

Aurrekontuei eusteko neurriak



Azalpen laburra

Beti uste izaten dogu Udal-aurrekontuak handiagoa izan beharko leukela. Beharizan asko dagoz eta lehentasunak zehaztu beharra dago.

Udal aurrekontua erabiltzean honakoa da abiapuntua: ohiko diru sarrerak nahikoa izan behar dabe ohiko gastuak eta zerbitzuak ordaintzeko, osterantzean, txarto goaz. 2009an Mungiako Udalak (ganerako udalek legez) 1.200.000€ kendu behar izan ditu (2008ko azaroan aurreikusitakoa baino 680.000€ gehiago) Bizkaiko Foru Aldundiari itzultzeko. Horrek derrigorrez eta urgentziazko neurri moduan ekarri dau hasikerako aurrekontuan aurreikusitako gastu batzuk egin barik eta bertan behera itxi behar izatea.

Ezin leitekez diru-sarrerak gehitu?

Hori gatxa da epe laburrean:
Udalkutxatik (Aldundiaren fondoa) datozen baliabideen menpe dagoalako Udala.
Gaur eguneko krisi egoerak Mungiako Udalarir diru-sarrera gitxiago izatea ekarri deusolako.
Mungiako hirigintza-garapenak diru-sarrera gitxiago sortu dauelako.

GASTUAK MURRIZTU BEHARKO DIRA, EZTA?

BAI, BAINA ZEINTZUK?

Gastu batzuk urteetarako dagoz adjudikatuta; esate baterako kaleen garbikuzikoa (1.600.000€). Gastu horreek Udalaren gastu arrunten %10 dira. Kasurako, hondakinak batzea eta eroatea beste 700.000 euro kostatzen da. Udaletxeko eta Astiuneko 2009ko aurrekontuetan murrizketak egin behar izan dira.

UDALETXEA 2009		
GASTUAK	hasiera 2009	Aurrezteko
ERAGIKETA ARRUNTAK	4.289.350,00	157.280,00
PERTSONALA	6.478.750,00	-22.412,52
ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	246.000,00	110.000,00
FINANTZA GASTUAK	4.701.765,00	197.500,00
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	15.715.865,00	442.367,77
ASTIUNE-2009		
GASTUAK	hasiera 2009	Aurrezteko
ERAGIKETA ARRUNTAK	1.913.600,00	40.000,00
PERTSONALA	1.913.600,00	40.000,00
ONDASUN ARRUNTAK ETA ZERBITZUAK	2.116.100,00	199.675,28
FINANTZA GASTUAK	4.000,00	0,00
TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	240.540,00	0,00
	4.274.240,00	239.675,28

Zertan murriztu dira gastuak?

- ▶ Pertsonal-gastuak AUEn eta Udaletxean: lan-hitzarmena 2010era artekoa da, baina KPI/IPCren igoerea aurreikusitakoa baino txikerragoa izan da. Hortxe daukagu 2009an aurrezteko errea. Aurten oinarriak ezartzen gabiltz pertsonalaren nuerrizko egiturea finkatzeko.
- ▶ Gastuak gora egun dau kontratu handietan: kaleen garbikuzia eta hondakinak batzea. Udalerria hazi egin da eta horregaz batera holako kontratuak.
- ▶ Finantza gastuak: akabuko hileotan EURIBOR indizearen aldaketea aldekoa izan da: mailegu bakarra udaletxearen erreformeak ekarri dauena da.
- ▶ AUE: erakunde honek eskaintzen dituan kultura- eta aisialdi-ekintzetan neurriak imini behar izan dira.

ETA ZER DAGO GIZARTE ZERBITZUETAN, LAN-SUSTAPENEAN...?

Hor ez dogu murriztu behar. Hori baino gehiago, Mungiako Udalak gizarte arolari, lanari eta sustapen ekonomikoari jagokan arloan gastua mantendu edo, behar izan ezker, igo egin behar dala planteatzen dau. Gizarte izaera argiko udal erakundeek (Mungialde Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoa eta Mungialdeko Bbehargintza S.L.) politika aktiboak garatu behar ditue atzerapen ekonomikoaren eraginak gitxitzeko Mungian..

MUNGIAKO UDALAK EZ DAU AURREZTU?

Akabuko urteotan soberakina egin da, baina, jakina, diru hori ez da gastu arruntei aurre egiteko erabili behar. "Aurreratu" dan diru hori inbersinoetan erabilten da: obrak, ekipamenduak, eraikitze-lanak...

ETA 2010ERAKO, ZER?

Ba aurrikusten dan egoera txarragoa izango da. Izan bere, aurten Udalkutxari milioi bat euro itzuli behar bajako, 2010ean bikoiztu egin leiteke kopuru hori. Eta hori diru-sarreren beherakadeagaz batzen badogu, derrigorra izango da beste neurri batzuk hartzen hastea. Labur esanda: aurrekontuaren aldetik txarragoa izango dan egoereari aurre egiteko prest egon behar dogu.



Gastua murrizteko neurriak

1.- 2009ko aurrekontua atzera aztertu eta egokitu.

Urte honetarako behar hori eginda daukagu.

2.- Zerga eta tasak hobeto gestionatzeko neurriak zehaztu.

Zerga eta tasen gestinoa hobetzea. Ez bada dirurik sartzen, gastau bere ezin lei egin.

4.- 2010eko udal-aurrekontuak egiteko oinarriak ezarri.

Mungia Udalaren eta berorren udal erakunde gastuen murrizketan oinarrituko da.

5.- Erosketak egiteko eta kontratazino txikia egiteko sistema bat ezarri Udaletxean.

Horren bidez, produktuak homogeneizatuko egingo dira, kostuak merketu eta, ondorioz, aurreratu egingo da erosketen gestinoa.

3.- Gastuak neurritz egin.

-Udalan aurrezteko neurrien manual praktikoa sortzea (fotokopiak, argia, bidaiak...)
-Udaletxeko eta AUEko langileen inplikazioa lortzea gastuaren murrizketa politikan.
-Neurri horren barri herritarrei emotea.
-2009an dedikazio eskusiboa daukien karguen ordainsariak, talde politikoenak, dieten.... kongelazioa egitea.

-Protokolo gastuak gutxitzea.

6.- Teknikari bat izendatu dirulaguntzak aztertze eta gestionatzeko.

7.- Luzatu barik udaleko plantilea finkatuko dauen plana garatu.

Plan hori garatzen gabiltz, baliabideak optimizatzeko eta, aldi berean, udalaren zerbitzuak bermatzeko. Plan horri jarraituta finkatu egingo dira langile batzuk.

BAINA, GAUZAK DAGOZAN MODUAN EGONDA, TASEK ETA HERRITARRENTZAKO PREZIOEK BERE EZIN DABE IKARAGARRI GORA EGIN.



EKINTZA POSITIBOAK SORTU BEHAR DIRA MUNGIKO HERRITARRENTZAT ETA ERAGILE SOZIOEKONOMIKOENTZAT

Ekintza horren helburuak

- Ahal dan neurrian, herritarrei zergen presinoa arindu, batez bere beharrezko zerbitzuetan eta zerbitzu orokorretan.
- Mungian bizi diranei zergen presinoa arindu, batez bere beharrianik handiena daukienei.

Eta zelan igarri hau 2009an?

2009rako neurri fiskal aringarriak

OHZ/IBI: Ondasun Higiezinaren ganeko Zergaren Atala.

- OHZ/IBI 2008ko zemendian PKI/IPCren azpitik igo zan.
- Hobariak: %50etik %100era arteko bonifikazioak emotea landa-finkei, kooperatibei, familia ugariari...

Eraikin, instalazio eta obren ganeko tasa.

%90era arteko bonifikazioak ondokoentzat:

- Oztopo arkitektonikoak kentzea.
- Igogailurik ez daukien eraikinetan igogailuak imintea.
- Mungiako behin-behineko inbentario arkitektonikoaren barruan dagozan eraikinak mantentzea eta berreskuratzea; interes bereziki jaten diran eraikin, instalazio eta lanak.
- Faxadaren garbikuzia egitea eta pintura emotea eta, orokorrean, faxadak txukuntzeko lanak burutzea; 1945aren aurretik eraikitako baserriak eta nekazaritza eta abeltzaintza arloko ustiapenak.

Estolderiagaitik eta hondakinak batzeagaitik ordaintzen dan tasa.

Udal tasetan laguntza sozialak dagoz ezarrita jubiladu eta pensinodunentzat. Laguntza horreek gizarte zerbitzuen bidez gestionatuko dira.

Establezimenduak irekitekoko baimenaren tasa.

- Establezimenduak idegiteagaitik kobratzen dan zergan igoerarik ez.
- Egoera jakin batzuetan ordainketatik salbuetsita ixtea.
- Bonifikazioak familakoaren arteko negozioen transmisioetan.

Hornitzaileei ordaintzeko epeak 60 egunetik 30era ekartea, eragile ekonomikoek daukiezan krisien kalteak murrizteko.

Zerga eta zerga-zorrak zatika ordaindu ahal izatea (onartzekotan)

Tira. Ondo dago, baina, zer egingo dogu Mungian txartoen dagozan herritarren alde? Orain arte arazorik bapere ez eukien auzokoak arazoakaz hasita dagoz.

Zelan gagozan

Gero eta lagun gehiagok eskatzen ditu laguntza sozialak. Geure herriko jentea da. Batetik, gero eta betebeharr handiagoen ardurea hartu dogu laguntza sozialak emoteko orduan. Bestetik, horrek behartzen gaitu ahalik eta ahalegin handiena egiten gizarte zerbitzuen beharrezan daukan jentea jentea modu eraginkorrean eta zehatzeanbanaka eta era pertsonalean hartzen.

Esan dogu lehen bere: Mungian behintzat, ezin dogu, ez dogu gura aurreratu edo gastua murriztu gizarte laguntzen arloan, edo enpleguan edo antzekoetan. Aurreratu behar bada, beste arlo batzuetan egin beharko da.



Honek behartu egiten gaitu dagozan zerbitzu eta laguntza guztiak mantentzen eta sendotzen: oinarriko errentea, gizarte larrialdietarako laguntzak, etxez etxeko laguntza (%20ko igoerea partida honen gastuan), mendetasuna daukien pertsonen laguntza (Jagoten), eta abar. 2009an 717.350€ gestionatuko dira programa honeetan, eta 2008an 599.044€ erabili ziran, eta udaletxeko aurrekontuetan gizarte gaietarako %16,49ko igoerea egon da. Horrez gainera beste hainbeste diru kudeatzen da Eusko Jaurlaritzatik eta Foru Aldunditik datorrena.

Helburu argia daukagu: zerbitzuak topean arindu eta indartzea, horrela gizarte zerbitzuetara egoera ekonomikoa dala eta gerturatzen dan edonork ahalik eta lasterren gainditu ahal izatea egoera hori eta lan mundura prestatuago itzultzea. Horixe da helburua, eta ez gizarte zerbitzuetan betiko geratzea.

Eragiteko Plan honetan neurri zehatz batzuk dagoz:

- 2009 eta 2010ean, Mungia-Mungialdean egoerarik txarrean bizi diranei laguntzeko gizarte-prestazioen maila igo.
- Mungia-Mungialdean gizarte eskusio arriskuan dagozan taldeak lan munduan sartzeko ekintzak prestatu.
- Gaur egungo egoera ekonomikoren aurrean, zerbitzuen eskarien igoerari erantzuteko prestatuta egon.
- Gizarte laguntzak edota ekonomikoak behar dituen mungiarrei lagundu. Mungiako Gizarte Zerbitzuen bezeroen gizarte eskusio dinamikak apurtzen lagunduko daben jarduerak landu.
- Oinarriko errentea hartzen dabenentzako enplegu inizatibak garatu Auzolan programen bidez (formazioa eta kontratazioa).
- Gizarte laguntzak hartzen dituenentzako lana bilatzeko ahalegina egin, Behargintzagaz batera.
- Herritarrak kontzientziatu aurreratzeko neurriak hartu daiezan.
- Herritarrei lagundu aurreratzeko ikasi daie, prestakuntza eta sensibilizazioaren bidez: neurri kontsumitzea, etxeko gauza errazak konpontzen ikastea, guneko publikoetan gizabidez eta errespetuz jokatzeko kanpainak garatzea.
- Herritarrak kontzientziatzea guneko publikoak eta kaleetako hiri-altzariak ondo erabilteko; horretara, txarto erabiltearen erruz sortzen dan gastu gehigarria ebitatuko da.
- Gizarte larrialdietako laguntzak askoz arinago ordaintzea.
 - Mungia-Mungialdearen begiratoki sozioekonomikoan parte hartzea. Begiratoki horretan ondokoek hartzen dabe parte: Gizarte Zerbitzuen Mungialde Partzuergoa, Mungialdeko Behargintza eta INEM.

Kontutan daukagu zenbat aurreratu litzateen (danon diruan, beste gauza batzuetarako erabili geinken diruan) ez bagendu beti kristal apurtuak, pintadak, grafitiak, paperontziak, seinaleak, bankuak, lorategiak, komun publikoak eta abar luzen bat konpontzen, kentzen eta garbitzen ibili beharko? Alkarbizitzarako ordenantzeak bere badauka plan honi jagokon zati bat.

Lanerako aholkularitza eta prestakuntza

Mungialdeko Behargintza

Zergaitik da hain beharrezkoa aholkularitza eta prestakuntza egokia izatea?

- Gauzak argi euki behar doguz. Geure burua ondo prestatzeko garaia da.
- Gaur egun lan-merkatutik urteten badozu, hemendik urte batzuetara ezingo zara bueltau lehengora beste barik, lehen egiten zan moduan.
- Orain beharrea hasiko diran gazteek bere sano gitxik lortuko dabe "bizi guztirako beharra". Egoera barriei aurre egiteko prest egon behar dogu.
- Etorkizuna zelan datorren argi ikusten ez dogun une honetan, jarduera dinamiko eta eragilea hartu beharko dau bakotzak, holan, prestakuntzan eta orientazioan jarduten dogun erakundeekaz batera, norberaren gaitasunak eta trebetasunak garatu eta norberaren bidea eta urtenbidea bilatu ahal izateko. Hor bidean bidelaguna izan behar dabe udalek.
- Mungiako Udalak eta garaitiko udalek bardin baliabide kopuru mugatua daukie; baina halan bere, geure ardurea da gure herritarrei (gazte zein heldu) bidea emotea behar daben aholkularitza eta prestakuntza hori lortu daien. Ekimentsuak, eskuzabalak eta konprometitzeko kapazak izateko garaia da.

HELBURUAK

Mungiako eta Mungialdeko langabetuei lan-merkatuan sartzen laguntzea.
Lan bila dabilzanei eurek euretara beharra topetako edo hobetzeko aukerea eskainiko deutseen tresnak eskura imintea.
Lan merkatuan sartzeko ibilbide pertsonalizatuak proposatzea.
Enpresa arloko ekimenak daukiezanei aholkularitza eta laguntza emotea.

- ▶ Herritari aholkularitza zerbitzu pertsonalizatua eskaini, lan munduan sartu daitezcan (soldatapeko langile modura) (Helburua 360 pertsona).
- ▶ "Lanbide" zerbitzuan (edo berorren ordezkioan) Behargintza guztiz integratu.
 - ▶ Erabiltzaileei aholku emon euren lehiakortasun-maila hobetzen lagunduko deutseen prestakuntza jarduerak burutu daiezan; beste eragile batzuek (IMEN, Lanbide...) eskaintzen dituen jarduerak hain zuzen bere.
 - ▶ Lan merkatuan sartzeko ibilbide pertsonalizatuak egingo dituan aholkularitza zerbitzua sortu.
- ▶ Mungialdeko Behargintzak eskaintzen dituan aholkularitza zerbitzuak indartu eta INEMeko zerbitzuakaz lankidetzatza bideratu.
- ▶ Beharra topetan "irakatsi", arlo horretan autonomoak izan gaitzean. Bakarkako eta taldeko ikastaroak, KZguneagaz alkarlanean.
- ▶ Behargintzako erabiltzaileak autoenpleguko ekimenetara bideratu.
- ▶ Urtebeterako helburu zehatzak imini geure buruari. Honako honeek:
 - 90 erabiltzaile Behargintzak sortzen dituan prestakuntza saioretan.
 - 121 erabiltzaile lan-munduan txertatzeko programetan (INEM CCLL, Enplegu-tailerra, Auzolan, E Plana, etab.).
 - 50 erabiltzaile euren enpresa ekimena garatzen.
 - 100 erabiltzaile Mungialdeko Behargintzako lan-bitartekaritza proiektuan, Mungiako/Mungialdeko enpresen beharrezanei erantzuten.
- ▶ Merkataritza eta zerbitzu sektorean beharrea dabilzantzeko prestakuntza jarduerak sortu.
 - ▶ Beharrerako prestakuntza eskaini, MBra lana eskaintzeko jotzen dabenen perfila kontuan hartuta eta Mungia/Mungialdeko eragile sozioekonomikoen beharrezan gogoan izanda.
 - ▶ 15-18 urte bitarteko 40 gazterentzako Hasikerako Lanbide Prestakuntzako programak ziurtatu.
- ▶ Lan arloko ikastaroak Behargintzak berak zuzenean ordaindu. Eta ikastaro horreek Behargintzako zerbitzu modura erroto eta homologatu.
 - ▶ MBko teknikariek informatika arloan alfabetizatze beharrezkoa dan prestakuntza eskuratzen lagundu erabiltzaileei, erabiltzaile horreek erraztasun handiagoa izan daien lan-merkatuan sartzeko (ikastaroak zapatuetan).
- ▶ Kualifikazio eskasa daukien langabetuei oinarritzko tresna informatikoen ganeko prestakuntza (TIC) eskaini.

Lan munduan sartzea. Behar bila.

Mungiako langabezia datuak oso adierazgarriak dira Euskal Herriko beste hainbat eskualdetakoak legez. Egia da beste eskualde batzuetako langabezia tasen azpitik ibili garala, baina azken hilabeteotan gora doa eta arin langabetuen kopurua gure artean. .

2009an Udalak enplegua zuzenean eta zeharka sortzeko hainbat ekimen jarriko ditu abian.

2009rako helburuak

Mungiako Udalak, Mungialdeko Behargintzak eta Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoak hainbat proiektu garatuko ditue langabezia dagozan 59 herritar kontratatzeko (46ri sei hilabeteko kontratua egingo jake eta garaitiko 13ei urte betekoa). Proiektu horreek INEMek eta Eusko Jaurlaritzak finantziatutako enplegu-programen barruan sartzen dira.

INEM CCLL programa

14 lagunek hartuko dabe parte INEM Toki Korporazioak deritxon programan. Batez bere, erdi eta goi mailako titulaziodunak edo Lanbide Heziketako goi zikloa burutu dabena izango dira.

Igeltserotzako Enplegu-Tailerra

12 lagunek hartuko dabe parte tailer horretan, eta euren helburua errota bat barrizutea izango da (prestakuntza kontratua eukiko dabe). 2009ko tailerrak urrira arte jarraituko dau

Udalaren inbersinoak (obrak)

Udalak egiten dituan obra eta inbersinoek lana sortzen dabe. Urbanizazio obra eta inbersinoetan kontratazino-irizpide barriak ezarriko dira. Horren ondorioz, 2009ko zemendira bitartean egingo diran obrak dirala-eta, 42 enplegu barri sortuko dira, hori bai, behin-behinekoak.

Lan eskaintzak bilatzea

Mungialdeko Behargintzak elementu eragile modura bideratuko dau enpleguaren gestioa: berak bilatuko ditu eskaintzak eta zuzenean egingo ditu prospekzioak inguruko enpresetan. Mungiako/Mungialdeko lan-merkatuaren behatokia sortu da.

Enplegu eta Toki Garapenerako agentea **kontratatzea**

Auzolan

Gizarte Zerbitzuetako Mungialde Partzuergoak eta Mungialdeko Behargintzak *Auzolaneko* lau prestakuntza jardura eskatu ditue:

- Multiasistentzia / azpiegituren mantentze-lanak.
- Ehungintzako tailerra.
- Gune publikoen eta lorategien mantentze-lanak.
- Geriatrico laguntzailea.

Guztira, oinarrizko errenta jasoten daben 32 lagunek hartuko dabe parte programa honetan. Udalak 70.000 euro inbertiduko ditu.

Lan eta gizarte arloan Mungiako Behargintzak egingo dauen bitartekaritza-lana.

Mungialdeko Behargintzak lan-eskaintzak gestionatzen ditu. Orain krisia dala-eta, beherakada nabarmena igarri dau Behargintzak lan-eskaintzetan, %15,78koa hain zuzen bere.

Gitxieneko helburuak: 2009ko maiatzetik 2010eko maiatzera bitartean 96 lan-kontratu kudeatzea.

Udalak egiten dituan inbersioei lana sortzeko irizpideak ezarriko jakez.

Ekonomia sustatzea

Gure udalak ekonomia sustatzeko egiten dauen ahaleginak ez deuto zuzen-zuzenean eragiten orain bizi dogun krisi ekonomikoari. Izan bere, ahalegin horren emaitza ez da berehalakoa, baina gaurdanik hasi behar dogu implementatzen; krisi egoerak behartu egiten gaitu ahalegina

handitzen, konzentratzen eta, batez bere, helburuak argi ezartzen. Mungiak krisiari aurre egiteko diseinatu dauen planean bost eragin esparru agertzen dira:

1

Mungiako/Mungialdeko ekonomiaren behatokia. Ekonomia eta gizarte arloko informazioa eta esperientziak trukatzeko behatoki bat sortuko da.

Mungiako enpresa prospekzioa.

Etorkizuna epe laburrera aztertu behar da, jorratu beharreko bide barriak zeintzuk diran ikusteko. Prospekzioak enpresetara bertara joanda egingo dira: 104 enpresaren ganeko azterketa sakona egin. Euren beharrianak eta perfilak, inbersinoak egiteko asmoa, behar dituen ekipamenduak eta azpiegiturak, alkarlanerako aukerak....

Belakoko negozio-zentroa eta enpresa ekimenak bultzatzeko gela.

2010eko apirilera martxan egon beharko leuke Elkartegi barriak, Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura S.A. soziedade publikoak sortu eta kudeatutako azpiegitura izango da. Horretaz ganera, enpresak kokatzeko pabilioiak eraikiko dira, negozio-zentro bat eta enpresa barrientzako zentroa.

Behargintzatik barrikuntzari eraginez

Mungiako Udalaren laguntza enpresa arloan ekimen barrizailleentzat

Enpresa arloan ekimen barrizailleak gauzatu gura ditueni laguntza eskainiko jake, 2009ko diru-laguntza horreek aurreko urteetakoak baino malguagoak izango dira (1.000 eurokoak).

Informazio saioak herriko eragile ekonomikoentzat, kontratazino publikoetara zelan aurkeztu leitekezan azaltzeko.

Mungiako Udalaren lokaletan lan-prestakuntzako saioak egiten dituen **enpresei beherapena** egingo jake lokalen sarrera-prezioan.

2 Merkataritza eta turismo arloa

Mungiako merkataritza eta ostalaritzagaz batera alkarlana bideratu.

Udalak eta Merkatarien Alkartek Mungiako Merkataritza-Mahaia osatu dabe. 2009rako egindako programearen arabera, lehentasuna emongo jake Mungiako merkataritza eta ostalaritzaren irudi korporatiboa indartzeari, baita herriko eta eskualdeko herritarrentzat Mungia merkataritza-gune nagusi bihurtzeari bere. Horretarako, "Mungia Bizi" eta merkataritzaren dinamizaziorako beste hainbat kanpaina jarriko dira abian.

Hauxe dogu momenturik aproposena gure herria metropoli inguruan egiten diran feria eta azoken erreferentzia nagusi bilakatzeko.

Mungia eskualdeko feria-gune nagusi modura indartu.

Ferriak eta azokak inguruko jarduera ekonomikoa dinamizatzeko tresna ezin hobeak dira. Herrien bereizgarri modura agertzen dira, indartu egiten dabe herriko jarduera ekonomikoa eta bisitariak erakartzen ditue. Mungiak komenentzia itzela eskaintzen dau arlo honetan, laurogeita hamar feriatik gora izaten ditu urtean. Daukagun aberastasun hori aprobetxatuta, Mungia Bizkai osoko nekazaritzako merkatuen ardatz bilakatzeko da gure helburua.

Zelan bideratuko da?



Ekimen pribatua inplikatzeko Mungia produktu turistiko modura (zentsuzkoa eta berezia) bultzatzeko.

Helburua: sei hilabeteen produktu turistiko berezi bat merkaturatzea. Produktu horrek Mungia elementu erakargarri eta berezitu modura aurkeztuko dau, metropoliagaz osagarri izan daitekeana. Eta aukera ezbardinak eskainiko ditu: euskal kultura (Izenaduba, herri kirolen parkea), ferriak eta azokak, produktu berezituak (cittá slow, slow food), nekazal turismoa, betiko produktuak, aisialdirako eskaintza pribatuak.

- ★ Ganadu Feria: feria hori Bizkaiko erreferente nagusi (bakar) modura indartuko da.
- ★ Barikuetako plazea: baserriko jeneroetan oinarritzen dan barikuetako plazea sendotzeko Andra Mari eleizako aterpea egokitu eta barriztauko da.
- ★ Plaza Berezia: produktu berezien hileroko plaza hau errotu eta ohitura bihurtzeko ahalegina egingo da.
- ★ (Merkagune programea: Udala-Merkatarien Alkartea-Eusko Jaurlaritza)

Industria arloa

Ezin gara begira lotu. Ez dago gure udalaren esku, halanda bere, oratu egin behar deusagu eta aurrera begiratu (epe luze eta ertainera).

3

Sustapen publikoko industria lurra eskainiko dira Mungian – Belako Elkartegia.

2010eko martirako zera egiteko moduan egotea espero dogu: Industria lurra enpresei errentan itxi, aurrerago erosteko aukerea emonda. Pabilioi tipo ezbardinak eskaini.

Enpresen arteko alkarlanerako batzarrak bultzatuko dira.

Industrialde edota arlo bakotzeko enpresen arteko alkarlana bideratzeko foro egonkorak sortzeko baliabideak ezarriko dira. Euron bidez Mungiako/Mungialdeko eragile ekonomikoen lehiakortasuna hobetzea espero da. Helburua: ekimen bateratuak sustatzea guztien interesekoak diran gaitetan, besteak beste, azpiegitura, seinalizazioa, logistika, gastuak merketzea eta hondakinak.

Mungiako enpresen mapa birtuala egingo da.

2009an enpresen mapa birtuala sortuko da. Enpresa txikiek eta handiek, guztiek izango dabe lekua mapa horretan.

Mungiako industria lurra dinamizatzeko, lankidetzaz bideratuko da SPRILUR soziedade publikoagaz.



Mungiara jarduera ekonomikoa erakartzeko Marketing Plana sortuko da.

Udalak bere esku ditu industriarako lursail batzuk, baina enpresen konfiantza faltak atzeratu egiten dau enpresa barriak lur horretan kokatzea. Urte amaierarako eginda euki behar dogu marketing plan bat eskura daukaguzan lursail horreetara enpresak erakarteko.

4

Udalak obra publikoetako inbersinoei eutsi egingo deutse 2009an.

2009an 10 milioi euro inguruko inbersinoak egitea aurreikusitako da Udalak. Inbersino horreek, lanpostuak sortzeaz ganera, eragin zuzena eukiko dabe udaleko jarduera ekonomikoan.

Gastuetan egin behar izan diran murrizketak ohiko gastuei aplikatu jakez, ez inbersinoei (obrak...)

2010ean eutsi ahal izango jako inbersino maila horri?

Bide-azpiegitura nagusiak eta euren eragin ekonomikoa.

Laster 2010ean hasiko dira BI-631 Mungia-Bermeo errepideko lanak.

Azpiegitura barri horrek izango dituan epe luzeko eraginez ganera, Behargintzak ahalegina egingo dau obra horretan Mungialdeko langabetuak eta enpresak kontratau daiezan.

Gatxa izango da, gure Udalak baliabide gitxiago eukiko ditu-eta. Halanda bere, obra garrantzitsuak dagoz aurreikusita ordurako: osasun-etxe barriaren eraikuntza (hasikerako lanak), Legarda ikastetxearen eraikin barriaren eraikuntza (lehengo fasea), Mungia-Bermeo errepidea.

Oinarrizko helburua: 2009-2010ean guztiz zehaztuta eta bideratuta itxi azpiegiturak dirala eta daukaguzan erronkarik handiean: trenbidea.

5

“Mungia Beharrean” Mungiako Hirigintzaren Kudeaketarako Udal Soziedadea eratuko da.

Eraikuntza sektoreko ekimen pribatua aspaldi honetan geldituta dago Mungian. Hirigintzaren Kudeaketako Soziedadeak 2009an ekingo deutso bere ibilbideari. Bere helburu nagusia hauxe izango da: Udala bera izan daitela etxebizitzaren eraikuntzako elementu eragilea, irizpide sozialetan oinarrituta; horretara, bide batez, jarduera ekonomikoa indartu eta enplegua sortu.

9

Kultura, kirola, aisialdia

Ulertu dot, bai, baliabide gitxiago badago eta ezin bada dirurik aurreratu gizarte zerbitzu edo enplegu arlotik ezta oinarrizko zerbitzuetatik bere (kasurako, kaleetako garbikuzia), arlo honetan egin beharko dirala murrizketak, bai ezta?

Astiunek ia-ia udal baten besteko egitura dauka Mungian. Gastua kontrolau eta kosteak gitxitu egin behar dira, baina kontua ez da murriztea huts-hutsean. Kultura eta kirola ez dira gure bizitzatik kendu geinkezan kapritxoak. Euren dimensinoa ondo neurtu eta gure udalak zeri erantzun leion aztertu behar da.

Krisiari aurre egiteko planean Astiunen aplikau beharreko neurri batzuk agertzen dira:

AUEk daukan ohiko gastua kontrolatuko da.

Kultur eta kirol arloan gaur egun emoten dan eskaintzari eutsi egingo jako (zerbitzuei hain zuen bere).

Kirola osasun-tresna modura praktikatzeko aukerea ziurtatuko jake herritar guztiei, eta egoera txarrean dagozan familiei hobariak emongo jakez.

Familiei hobarien barri emongo jake: familia ugarietara, baliabide ekonomiko gitxi daukienei, jubilatuei edo Gazte-txartela daukienei...

Kiroldegiko zerbitzuen tasak kobratzeko sistema barria jarriko da martxan. Aurrerantzean hileroko kobratuko dira hainbat tasa, ez hiru hilerik hiru hilerara orain arteko moduan.

Mungiaiko Udalak herriko Alkarteei emoten deutsezan diru-laguntzetan KPIren igoera bermatu egingo da.

Informazioa jasoteko kultur zerbitzuen erabilera bultzatuko da.

Mungiaiko alkarrekin herriko kultura eta kirola dinamizatzeko sortu eta garatutako ekintzei lehentasuna eta laguntza emongo jake.

Helduei euskeraz ikasteko erraztasunak emongo jakez (kostearen %75 ordainduko jake).

Gazteei aisialdirako doako alternatibak eskainiko jakez: GazteZer-en ordutegia zabaldu egingo da.

Kirol eta kultur jarduerak ekonomia-jarduera bilakatzeko ahalegina egingo da.

Urtean zehar antolatzen diran ekintza kulturalak herriaren ekonomia dinamizatzeko aukera ezin hobea dira, adibidez, jaiak, feriak, bildumazaleen feria, internet eguna, Lore Jokoak, Olentzero, auto klasikoaren erakusketak...

Informazioa, komunikazioa, parte hartzea

azaltzea



Helburuak

Udal informazioa jasoteko aukerea bermatzea. Bizi dogun egoera ekonomikoa dala-eta, ez geunke gura Mungiaiko bizilagun bakar bat bere informazio eta komunikazio sare nagusietatik kanpo geratu daiten, horretarako egin behar dan gastua handia izan arren.

Hori dala-eta, informazioa zabaltzeko eta herritarrek parte hartzeko orain arte erabili diran bideak sendotzeko ahalegina egingo da: udal adizkaria, batzar idegiak, udal administrazioan sartzeko aukerea...



Komunikazio eta informazio programak eratu dira krisiaren ondik norakoekaz egunean egon ahal izateko.

Herritarrei Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiak erabilteko tresnak eta gaitasunak emotea da helburuetako bat.

Udalak arreta berezia jarriko dau krisi honetatik urteteko hartzen diran neurriek ezelango herritar talderik teknologia mundutik baztertuta itxi ez daien.



Aparteko ahalegina egingo da mungiar guztiek herriko eta mundu zabaleko informazioa eskuratzeko ere eta parte hartzeko bideak eskura izan daiezan.

Oinarrizko tresnak ipiniko dira herritarren eskura, informazioa eskuratu ahal izateko, parte hartu ahal izateko oinarria.



Herritarrei Internet bidez informazioa doan jasoteko oinarrizko tresnak eskainiko jakez: Torrebillelan, Katetxean, Gaztegunean, Kzgunean eta Danontzat alkartean.

Paraje: San Pedro jaietako aurrekontuak

Jaietan bere aurrekontuak gora eta behera ibiltzen gara. Are gehiago aurten. Hainbat gastu, ekitaldi eta kontratazio murriztu behar izan doguz. Izan bere diru diru estualdian gatxa izango litzateke gastu batzuk justifikatzea. Halan eta guztiz bere, daukaguzan eskuarteekaz, ahalik eta programazio polit eta bariatua eskaintzeko ahalegin handia egin da.

Zein da San Pedro jaietako aurrekontua?

San Pedroetako jaiak 250.000 euroko aurrekontua dabe. Kontuan izan behar, beste alde batetik, jai bakarrak ez dirana. Amaitu eta atoan auzoetako jaiak doguz (12 jai gehiago) auzoetako batzordeek antolatutak eta 105.000 euroko dirulaguntza daukeenak. Horrez ganera, San Antontxu, Lore Jokoak, feriak eta ekitaldi mordoak daukaguz urtean zehar.

Murriztu egin dira gastuak 2008ren aldean? Zein irizpide erabili dira?

Hasierako aurrekontuari eutsi ahal izan jako gutxi gora behera. Jai batzordeak eginahalak egiten dituz dagoanetik ahalik eta probetxurik gehien atarateko dagoan dirua dago eta lehen-lehenengo Udalak herriko alkarte eta taldeekaz daukazan konpromisoari eutsi behar deutse.

Azpiegiturak, ikusten ez dana

Aurrekontu osoaren herena dira. Ikusten ez dan guztia da: instalakuntza elektrikoak, komunak, eskenatokiak, eduiontziak, garbikuzi bereziak...

Gure alkarteen lana

Egiten dabena itzela da: 17 ekitaldik, sukalki eguna barruan, 40.000 euroko kostea dauke; kontzertu handi horretarako batek kostako leukeena baino gutxiago.

Zertan aurreztu dogu?

Murriztu egin dira azpiegitura gastu batzuk: aulkiak alokatzea, publizitate gastuak, banderak jartzea (jartzea bakarrik 6000 €) panelak (4.500) erreboterako grada alokatzea. SBeste alde batetik, kendu egin dira ohikoak izaten diran protokolo gastuak, gonbidapenak eta abarrak.

Hona, ba, 2009an eskuan erabili behar doguzan aurrekontuak..

Mungia alkarteek antolatutako ekitaldiak

Kepa Deuna txapelketa (Mungia F.S.T.)	3.603,00
Kepa deuna futbol txapelketa (tribunak)	4.000,00
XIV Seven Rugby	1.000,00
Plater tiroketa, arrantza eta txakur lehiaketak	1.000,00
Txori txapelketa	900,00
Txirindularien eskolarteko batzar eta San Pedro sariketa	3.200,00
Diz-diz teatroa: azpiegitura	3.652,00
Boleibol 3x3	500,00
Saskibalo txapelketa	500,00
Fanfarria	2.120,00
Tortilla txapelketa	1.500,00
Amilotxen ekitaldia: azpiegitura	5.576,00
Street basquet txapelketa	600,00
Soka-tira	600,00
Sukalki eguna	6.000,00
Kepa deunaren idi probak	2.000,00
Garaikurrak, sariak	1.050,00
Herri Kirolak	2.500,00

Kontzertuak eta musika	
Txoznen kontzertua	16.500,00
Always drinking marching band	5.394,00
Mariachi	3.480,00
Noche clonica	10.208,00
Bertso saioa	1.800,00
Korrontzi	9.700,00
Dantzatekoak+erdizka lauetan	3.596,00
Txupinazo eguneko gastuak	8.900,00
Marijata; txalaparta eta txistulariak, balon loco, cpluscolors (4.000), fanfarria, pañuelos ...	
Baserritarraren eguna	5.698,00
Beretoko piztien erakusketa	
Zaldizko ibilaldiak	
Erakusketak	
Beste ekitaldi batzuk	
Gramola	1.867,00
Abesbatzen kontzertuak	900,00
Circomotic	2320,00
Txu-txu trenak	1.500,00
Giganteak, gaiteroak	2.600,00
Itsas parkea	2.180,00
Txosnetako herri merienda	1.500,00
Kale teatroa	2354,00
Zinea kalean	1.392,00
Uretako jolasak	856,00
Pirritx eta porrotx	4.060,00
Sariak (astoak, goitiberak, txalupak)	1.700,00
Idiskoak	2.000,00
Umeen parkea	3.500,00
Erromeria Aitxikistan	2.033,00
Ume bazkaria	300,00
Pala profesionala	3.000,00
Play back lehiaketa	3.248,00
Antzerki ikastaroa	500,00
Play back sariak	1.140,00
Suziri handiak	9.000,00
Nagusien eguna	13.000,00
Besterik	2.300,00
Azpiegitura gastuak	
Banderak	3.664,00
Esketanotiak	10.500,00
Jai kartela: lehiaketa	705,00
Komunak eta hesiak	5.500,00
Instalakuntza elektrikoa eta lotuneak	12.000,00
Zerbitzu enpresak: zamaketak, zaintza, buzoneoak	8.150,00
Garbikuzi bereziak	7.800,00
Publizitatea	5.500,00
Kartelak	180,00
Iberdrola: lotuneak	1.100,00
Programak (euskera)	1.040,00
Soroslea	350,00
Garabiak	2.500,00
S.G.A.E. (autoreak)	3.500,00
Edukiontzia	2.300,00
Gasoleoa	70,00
Biltegia	430,00
Pilota	600,00
Makina alokairuak	1.350,00
Estalpeak	210,00
Oholak	400,00
Bedar ebateak	2.000,00
Materialak	3.900,00
Soinuztatzeak, argizatzeak...	8.500,00
Total	250.074,00

Asago: Mungia 2021

Apirileko eta maiatzeko lau zapatutan, hamazortzi mungiar batu dira udaletxeko dorrean, Alkateak deituta. Era askotariko pentsamenduko pertsonak, arlo sozialean, politikoan zein profesionalean, modu desberdinetan jokatzeko dabena. Data bat, urte bat ipini zana mahai ganean, ia-ia abasberuan aukeratutako urte bat, 2021, eta galdera bat, mahaigaineratu zana: zelakoa izan liteke edo edo zelakoa gurako genduke gure herria urte horretan?

Hausnarketa prozesu hau Alfonso Martinez de Cearrak bideratu dau, Bilbao-Metropoli 30 deritzoneko zuzendari-kudeatzailea. "Eskenatokien metodologia" izeneko hausnarketa jarduera erabiliz, epe luzerako ikuspegia lortu nahi izan da. Izan bere, epe luzerako hausnarketa beharrezkoa da, urteak eta hamarkadak behar izaten dira eta arrakasta euki daitezkeen aldaketak bideratu ahal izateko.

Seguruak eta seguruak ez diran gertakari posibleak aztertu dabez, gure baliabideak eta gabeziak. Hortik abiatuta, etorkizuneko hiru-lau eskenatoki posible marraztu ziran eta horreetariko bakoitzak gure bizitzan euki daitezkeen eragina aztertu zana.

Itaun edo galdera baten ganean eratu zana eztabaida: zeintzuk izan daitezkeen baldintzak edo egoerak gure herriak hamar urte barru arrakasta izan dagian? Guzti-guztiok bat etorri ziran oinarrizkoena azpiegiturak eta trenbidea dirala. Baina azpiegiturak oinarrizkoak badira bere, oinarrizkoagoak ei dira pertsonak eta euren baloreak. Hausnartu bere, hausnartu zana Mungiaren nortasunaz, identitateaz, eta hau gorde beharrianaz, ondo jakinda Mungia ez dala inoiz uharte bat izan, bidegurutzea izan dala eta izango dala, leku askotatik etorritako eta leku askotara joandako jendeagaz; eta aztertu zana zelan bihurtu aukera ezaugarri hau XXI. gizaldian. Aztertu egin ziran industria arloan zein hirugarren sektorearen arloan jorratu beharreko bide batzuk...

Ezer argi lotu bazan zera izan zana, epe luzerako hausnarketa prozesuok oinarrizkoak dirala, baina are oinarrizkoagoa horreetariko bakoitzetik lan proiektu zehatzak urtetzea. Bigarren fasea ei da.

Bitartean, gure etorkizuna bideratzeko parte hartze prozesuak gero eta zabalagoak, askotarikoak eta eraginkorragoak izango dira.

Esku zabaltasun osoz euren denbora eta jakintza ehain modu eraginkorrean eskaini dabena guztiei, eskerririk asko.